

**EUSKALTEL SA-REN  
IZENDAPEN ETA  
ORDAINKETA  
BATZORDEAREN  
ARAUDIA**

## ATARIKO KAPITULUA

### 1. artikulua. Batzordearen izaera

Izendapen eta Ordainketa Batzordea (“**Batzordea**” edo “**Izendapen eta Ordainketa Batzordea**”) Euskaltel SAREN (“**Sozietatea**”) Administrazio Kontseiluaren bidez osatua dago, Sozietatearen Estatutuen 65. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Batzorde hori informazio-eta aholku-izaerako organoa da, funtzio exekutiborik gabekoa, bere jardura-eremuan informatzeko, aholkatzeko eta proposatzeko ahalmena duena, eta Sozietatearen Estatutuetan, Administrazio Kontseiluaren Araudian eta Izendapen eta Ordainketa Batzordearen Araudi honetan (“**Araudia**”) aurreikusten denaren arabera eraenduko dena.

### 2. artikulua. Araudiaren xedea

Araudi honen xedea da Batzordearen jardura-printzipioak eta Batzordea antolatze eta haren funtzionamendurako oinarrizko arauak zehaztea.

### 3. artikulua. Onarpena eta aldaketa

1. Administrazio Kontseiluak, hartako lehendakariak edo kontseilarien herenak (1/3) proposatu behar du Araudia, eta Administrazio Kontseiluko kideen gehiengo osoaren adostasunez onartu behar da. Onartzen den egunean jarriko da Araudia indarrean.
2. Araudiaren aldaketak Batzordeak, hartako lehendakariak edo kideen herenak (1/3) proposatu behar ditu, eta Batzordeko kideen gehiengo osoaren adostasunez onartu behar dira. Ondoren, hala badagokio, Administrazio Kontseiluak berretsi behar ditu. Berresten diren egunean jarriko dira aldaketak indarrean.

## I. KAPITULUA. EREMUA ETA FUNTZIOAK

### 4. artikulua. Eskumen-eremua

Batzordearen funtzioak Batzordeak berak bete behar ditu, bai Sozietateari dagozkionak, bai bere taldea osatzen duten mendeko sozietatei dagozkienak.

### 5. artikulua. Batzordearen funtzioak

Batzordearen zeregin nagusia da Administrazio Kontseiluari laguntzea, hura informatzea eta hari proposamenak egitea, Sozietatearen Estatutuek, Administrazio Kontseiluaren Araudiak eta Araudi honek une bakoitzean esleitzen dizkioten arloetan.

Administrazio Kontseiluak edozein unetan esleitu ahal dizkion beste edozein zereginen kalterik gabe, Izendapen eta Ordainketa Batzordeak honako oinarrizko funtzioak gauzatuko ditu:

- (i) Administrazio Kontseiluan behar diren eskumenak, ezagutzak eta esperientzia ebaluatzea. Horretarako, postu bakoitza bete behar duten hautagaien beharrezko funtzioak eta gaitasunak zehaztuko ditu, eta ebaluatuko du zenbat denbora eta dedikazio behar den beren betebeharra modu eraginkorrean egiteko.
- (ii) Administrazio Kontseiluan ordezkari gutxien duen sexuarentzako ordezkari-helburu bat ezartzea, eta helburu hori lortzeko moduei buruzko orientabideak sortzea.

- (iii) Kontseilari independenteak izendatzeko proposamenak Administrazio Kontseiluaren aurrean aurkeztea kooptazio bidez izendatuak izan daitezen edo Akziodunen Batzar Nagusiaren erabakiaren menpe ezar daitezen, bai eta Akziodunen Batzar Nagusiak kontseilari horiek berrautatzeko edo postutik kentzeko proposamenak aurkeztea ere.
- (iii) Gainerako kontseilarien izendapen-proposamenen berri ematea, kooptazio bidez izendatuak izan daitezen edo Akziodunen Batzar nagusiaren erabakiaren menpe ezar daitezen, bai eta Akziodunen Batzar Nagusiak kontseilari horiek berrautatzeko edo postutik kentzeko proposamenen berri ematea ere.
- (v) Goi-zuzendarien izendapen- eta kentze-proposamenen eta haien kontratuen oinarrizko baldintzen berri ematea.
- (vi) Administrazio Kontseiluko lehendakariaren eta Sozietatearen lehen exekutiboaren ondorengotza aztertzea eta antolatzea, Administrazio Kontseiluari galderak egitea, dagokionean, ondorengotza hori ordena eta plangintza baten arabera egin dadin.  
Araudi honen ondorioetarako, Sozietatearen “lehen exekutiboa” izango da lehendakari exekutiboa, kontseilari delegatua edo zuzendari nagusia, kontseilaria izan edo ez.
- (vii) Administrazio Kontseiluari proposatzea kontseilarien, eta zuzendari nagusien edo zuzenean Kontseiluaren, batzorde exekutiboen edo kontseilari delegatuen menpe dauden goi-mailako funtzioak gauzatzen dituztenen ordainketa-politika, bai eta kontseilari exekutiboen banako ordainketa eta kontratuaren gainerako baldintzak ere, eta horiek betetzen direla zaintzea.

**6. artikulua. Eskumenak, Administrazio Kontseiluaren eta haren batzordeen osaerari eta Administrazio Kontseiluaren barneko karguak eta goi-zuzendariak izendatzeko prozesuari buruzkoak.**

Esparru horretan, honako hauek izango dira Batzordearen funtzio nagusiak:

- (i) Administrazio Kontseiluari aholkularitza ematea Administrazio Kontseiluaren beraren eta batzordeen konfigurazioaren inguruan, une bakoitzean dauden kontseilari-mota ezberdinen arteko tamainari eta orekari dagokionez. Horretarako, Batzordeak aldi-aldi berrikusiko du Administrazio Kontseiluaren eta haren batzordeen egitura, bereziki organo horietan postu hutsak sortzen direnean.
- (ii) Jakinaraztea pertsona juridikoa den kontseilariaren ordezkari bezala pertsona fisiko bat proposatu dela.
- (iii) Administrazio Kontseilua osatzeko eta hautagaiak aukeratzeko zer irizpideri jarraitu behar zaion jakinaraztea eta berrikustea. Horretarako, definituko du zer funtzio eta gaitasun behar dituzten, eta ebaluatuko du beraien zeregina zuzen gauzatzeko zenbat denbora eta dedikazio behar den. Eta zainduko du, hautaketa-prozedurek, postu berriak hornitzen edo kontseilari berriak izendatzen direnean, diskriminazioa suposatuko lukeen lerrabide inpliziturik izan ez dezaten, bereziki emakume kontseilarien hautaketa oztopatu ez dezaten; horretarako, Kontseiluan emakume kontseilarien ordezkari izateko helburua ere ezarriko da, helburu hori lortzeko orientabideak sortuz.

- (iv) Zaintzea kontseilarien kargua, edozein prozeduraren bidez, beteko dutenek baldintza hauek betetzen dituztela: zintzotasuna, egokitasuna, sinesgarritasuna, gaitasuna, esperientzia, prestakuntza, trebakuntza, prestasuna eta konpromisoa; eta zaintzea, baita ere, ez direla, zuzenean edo zeharka, interesen bateraezintasun-, debeku-, gatazka- edo aurkakotasun-auzipean erori izaera orokorreko xedapenean aurreikusitako gizarte-interesekin.
- (v) Batzorde bakoitzeko kide izan behar dutenei dagokien izendapen- edo kentze-proposamenak jakinaraztea edo egitea. Horretarako, egiaztatuko eta homologatuko du dagokion batzordearen, eta, bereziki, Ikuskaritza eta Kontrol Batzordearen, eskumenerako beharrezkoak diren ezagutza eta esperientzia dutela.
- (vi) Administrazio Kontseiluko lehendakaria, eta, dagokionean, Sozietatearen lehen exekutiboa, izendatzeko edo kentzeko proposamenak jakinaraztea edo egitea.
- (vii) Administrazio Kontseiluko lehendakariaren eta Sozietatearen lehen exekutiboaren ondorengotza aztertzea eta antolatzea, eta Administrazio Kontseiluari proposamenak egitea, dagokionean, ondorengotza hori ordena eta plangintza baten arabera egin dadin.
- (viii) Administrazio Kontseiluko lehendakariak Administrazio Kontseiluaren lehendakariordea izendatzeari edo postutik kentzeari buruz egindako proposamenak jakinaraztea edo egitea.
- (ix) Administrazio Kontseiluko lehendakariak funtzio exekutiboak gauzatuz gero, Administrazio Kontseiluan aurkeztea gaitasun bereziak dituen kontseilari independente baten izendapen-proposamena, eta kentze-proposamenak jakinaraztea.
- (x) Administrazio Kontseiluaren lehendakariaren proposamenak jakinaraztea, edo Administrazio Kontseiluko idazkariari edo idazkariordeari dagokien izendapen- edo kentze-proposamenak egitea.
- (xi) Ziurtatzea kontseilari ez-exekutiboek denbora nahikoa dutela erabilgarri beren funtzioak zuzen gauzatzeko.
- (xii) Goi-zuzendarien izendapenari, sustapenari edo haiek kentzeari dagozkien proposamenak jakinaraztea, baita Sozietatearen organigrama eta ardura-banaketa berrikusteko eta aldatzeko proposamenak ere.
- (xiii) Urtero egiaztatzea kontseilariak aukeratzeko politika betetzen dela. Egiaztapen horren berri emango da gobernu korporatiboaren urteko txostenean.
- (xiv) Sozietateko eta bere taldeko kontseilarien eta goi- zuzendarien hautaketa, izendapenak eta ordainsariak ezagutzea, eta horien berri ematea, dagokionean, Administrazio Kontseiluari.  
Erregelamendu honi dagokionez, “goi-zuzendariak” izango dira Administrazio Kontseiluaren edo, halakorik izanez gero, Sozietateko lehen exekutiboaren menpe daudenak zuzenean, eta, edozein kasutan ere, baita Sozietatearen barne-ikuskaritzako arduraduna ere.
- (xv) Administrazio Kontseiluak edo bere lehendakariak, beren eskumen-eremuaren barruan, eskatzen dizkion txostenak egitea eta jarduerak lantzea.

## **7. artikulua. Kontseilari izateko hautagaiak aukeratzearen inguruko eskumenak**

- (i) Sozietateko kontseilari izendatuak izateko hautagai posibleak aukeratzea, eta proposamenak edo txostenak, dagokionaren arabera, Administrazio Kontseiluari aurkeztea, lehendakariaren bidez.
- (ii) Kontseilari independenteen izendapen-proposamenak Administrazio Kontseiluan aurkeztea (kooptazio bidez izendatuak izan daitezten, edo Akziodunen Batzar Nagusiaren erabakiaren menpe jar daitezten).
- (iii) Kontseilari independenteei berariaz eskatu ahal zaizkien baldintzak bete egiten direla egiaztatzea legean eta Sozietatearen barne-araudian, eta informazio egokia bilatzea beren gaitasun pertsonalen, esperientziaren eta ezagutzen inguruan, eta benetan duten prestasunaren inguruan.
- (iv) Gainerako kontseilarien izendapen-proposamenen berri ematea, Administrazio Kontseiluko lehendakariaren edo Administrazio Kontseiluko beste edozein kideren eskariari jarraikiz (kooptazio bidez izendatuak izan daitezten edo Akziodunen Batzar Nagusiaren erabakiaren menpe jar daitezten).

### **8. artikulua. Kontseilariak ebaluatzearen eta berrautatzearen inguruko eskumenak**

Esparru horretan, honako hauek izango dira Batzordearen funtzio nagusiak:

- (i) Prestakuntza, trebakuntza, eta, dagokionean, independentzia ebaluatzeko eta berrikusteko urteko programa ezartzea eta gainbegiratzea, baita ere kontseilariaren kargua betetzeko eta batzorde zehatz bateko kide izateko beharrezkoak diren zintzotasun, egokitasun, sinesgarritasun, gaitasun, prestasun eta bere funtzioarekin konpromisoa izateko baldintzak mantentzea ere, eta Administrazio Kontseiluari proposatzea egoki deritzon neurriak; horretarako, beharrezkoa edo egokia deritzon informazioa edo dokumentazioa bildu ahal izango du.
- (ii) Administrazio Kontseiluaren lehendakariaren, eta, dagokionean, Sozietatearen lehen exekutiboaren lana ebaluatzeko urteko prozesuan parte hartzea.
- (iii) Aztertzea, kontseilari bat izendatua izateko epea bukatu baino lehen, ea komenigarria den kontseilari hori berrautatzea, eta kontseilari horrek parte hartzen zuen Administrazio Kontseiluko batzordeetan mantentzea.
- (iv) Egiaztatzea berrautatzeaz dagoen kontseilariak betetzen jarraitzen duela Sozietateko kontseilari orori eska daitezkeen baldintza orokorrak, Legean ezarritakoaren arabera; halaber, ebaluatzea kontseilariak, aurreko mandatuan, bere karguan betetako lanaren eta dedikazioaren kalitatea ere, eta bereziki, bere funtzioarekin izan duen zintzotasuna, egokitasuna, sinesgarritasuna, gaitasuna, esperientzia, prestakuntza, trebakuntza, prestasuna eta konpromisoa.
- (v) Aurreko paragrafoetan deskribatutako prozedurak bukatu ondoren, kontseilariak berrautatzeko proposamena (kontseilari independenteak badira) edo txostena (gainerako kontseilarien kasuan) aurkeztea Administrazio Kontseiluari.

### **9. artikulua. Kontseilariak kentzearen eta haien kargu-uztearen inguruko eskumenak.**

Esparru horretan, honako hauek izango dira Batzordearen funtzio nagusiak:

- (i) Administrazio Kontseiluari jakinaraztea kentze-proposamenak sortu direla kontseilariari dagozkion betebeharrak ez betetzeagatik, edo dimititzeko edo halabeharrez kargua uzteko egoeraren batean bat-batean erori izateagatik.
- (ii) Kontseilariak kentzea proposatzea honako kasu hauetan: bateraezintasuna, debekuak, egiturazko interes-gatazka edo dimititzeko edo kargua uzteko beste edozein arrazoi, Legearen edo Sozietatearen barne-araudiaren arabera.
- (iii) Aurreko paragrafoetan aurreikusitako ondorioetarako, kontseilariari, kontseilari pertsona juridikoak ordezkatu behar dituzten pertsona fisikoei, eta, kontseilari dominikalen kasuan, beren izendapena proposatu, eskatu edo ezarri duten akziodunei eskatzea beharrezkoa edo egokia deritzon informazioa edo dokumentazioa.

## **10. artikulua. Ordainsariei dagozkien eskumenak**

Zentzu horretan, honako hauek izango dira Batzordearen funtzio nagusiak:

- (i) Kontseilariari eta goi-zuzendariei ezarritako ordainsarien politika aldi-aldi berrikustea, akzio bidezko ordainsari-sistemak eta haien aplikazioa barne. Era berean, bermatuko da haien banako ordainsaria Sozietateko gainerako kontseilarien eta goi-zuzendarien ordainsariaren neurrikoa dela.
- (ii) Administrazio Kontseiluko goi-zuzendariei ezarritako ordainsari-politika aldatzea eta eguneratzea proposatzea.
- (iii) Proposatzea Administrazio Kontseiluari alda eta eguneratu dezan kontseilariari ezarritako ordainsarien politika, Akziodunen Batzar Nagusian aurkeztua izan dadin, baita kontseilari horien urteko ordainsarien zenbatekoa ere.
- (iv) Kontseilari exekutiboen banako ordainsaria eta beren kontratuen gainerako oinarritzko baldintzak proposatzea Administrazio Kontseiluari onar ditzan, baita kontseilari exekutibo horiek beren kargua aurretiaz utzi behar duten kasuetarako ezar daitezkeen kalte-ordaina eta sozietateak aseguru-sariengatik edo aurrezki-sistemei egindako ordainketengatik ordaindu beharreko kopuruak ere, betiere Sozietatearen barne-araudian aurreikusitakoaren arabera, eta, bereziki, Akziodunen Batzar Nagusiak onartutako ordainsari-politikaren arabera.
- (iv) Administrazio Kontseiluari jakinaraztea eta aurkeztea Administrazio Kontseiluko lehendakariaren edo lehen exekutiboaren proposamenak, goi-zuzendarien ordainsari-egituraren eta haien kontratuen oinarritzko baldintzen ingurukoak direnak, kargua utzi behar den kasuetarako finka daitezkeen konpentsazio edo kalte-ordain posibleak barne.
- (v) Taldeko langile guztiei dagokien pizgarri-planak eta pentsioen osagarriak jakinaraztea eta egitea.
- (vi) Taldeko langileen ordainketa-programa orokorrak aldi-aldi berrikustea, eta balioztatzea haien egokitasuna eta emaitzak; bai eta aldaketa- edo eguneratze-proposamenak egitea ere.
- (vii) Sozietatearen ordainketa-programak betetzen direla zaintzea, eta Administrazio Kontseiluak onartu beharreko dokumentuak jakinaraztea, ordainketen inguruko informazioa zabaltzeko, kontseilarien ordainketen Urteko Txostena eta Sozietatearen Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostenari dagozkion atalak barne.

- (ix) Zaintzea interes-gatazkek Batzordeari emandako kanpoko aholkularitzaren independentzia kaltetu ez dezaten zaintzea.
- (x) Kontseilarien eta goi-mailako zuzendarien ordainketen inguruko informazioa, korporazioko hainbat dokumentutan jasota dagoena, egiaztatzea, bai eta kontseilarien ordainketen inguruko urteko txostena ere.

## **II. KAPITULUA. OSAERA ETA FUNTZIONAMENDUA**

### **11. artikulua. Osaera**

1. Batzordean izango dira gutxienez hiru (3) eta gehienez bost (5) kanpo-kontseilari (hau da, dominikalak eta independenteak). Batzordekide gehienak kontseilari independenteak izango dira.
2. Muga horien barruan, Batzordeak proposamen bat aurkeztu ahalko dio Administrazio Kontseiluari bere kide-kopurua aldatzeko, kopuru hori egokiagoa eta funtzionamendua eraginkorragoa izan dadin.

### **12. artikulua. Izendapena**

1. Administrazio Kontseiluak, bere lehendakariaren proposamenari jarraikiz, batzordekideak izendatuko ditu, kanpoko kontseilarien artean.
2. Administrazio Kontseiluaren esku izango da batzordekideen izendapena. Horretarako, saiatuko da kide horiek beren funtzioak betetzeko egokiak diren ezagutza, gaitasunak eta esperientzia izan dezaten.

### **13. artikulua. Kargu-banaketa**

1. Batzordeak lehendakari bat aukeratuko du Batzordea osatzen duten kontseilari independenteen artean.
2. Era berean, Batzordeak idazkari bat izendatuko du, eta idazkari hori batzordekideetako bat edo Administrazio Kontseiluko idazkaria edo idazkariordea izan daiteke.

### **14. artikulua. Idazkariaren funtzioak**

Honako hauek izango dira idazkariaren funtzioak:

- (i) Batzordearen dokumentazioa gordetzea. Horretarako, Batzordearen saioretan landutakoa jasoko da akta-liburuetan, non Batzordeak hartutako akordioen fede emango den, eta Batzordearen jarduerak, forma eta material aldetik, legearen arabera egin direla zainduko den.
- (ii) Batzordeak hartutako aktak eta akordioak egiaztatzea. Batzordeko idazkariak bidaliko eta sinatuko ditu egiaztapen horiek; idazkaririk ezean, batzordekiderik gazteenak, lehendakariaren oniritziarekin; edo, halakorik ezean, adin handieneko batzordekideak.
- (iii) Batzordeak Araudi honetan aipatzen diren gainerako organoekin, zuzendaritzekin edo hirugarrenekin dituen harremanak bideratzea eta koordinatzea, Batzordeko lehendakariaren jarraibideen arabera.

- (iv) Araudi honetan esleitutako gainerako funtzioak, bai eta Sozietatearen Estatutueta eta Administrazio Kontseiluaren Araudian araututakoak ere.

### **15. artikulua. Iraupena**

1. Batzordeko kideak gehienez lau (4) urterako izendatzen dira, eta berrauta daitezke beste behin edo gehiagotan, gehienezko iraupen bera duten denboraldietarako.
2. Batzordeko lehendakariaren kargua lau (4) urtez bete behar da gehienez, eta, denboraldi horren buruan, kargu hori bete duen kontseilaria ezin da lehendakari berrautatu hark kargua utzi eta urtebete (1) pasatu arte, hargatik eragotzi gabe Batzordeko kide izaten jarraitzea.
3. Batzordeko idazkariaren kargua lau (4) urtez bete behar da gehienez, eta berrauta daiteke beste behin edo gehiagotan, gehienezko iraupen bera duten denboraldietarako.

### **16. artikulua. Uztea**

Batzordekideek honako kasu hauetan utziko dute kargua:

- (i) Sozietateko kontseilari-izaera galtzen dutenean.
- (ii) Kanpoko kontseilarien izaera galtzen dutenean.
- (iii) Administrazio Kontseiluak hala adosten duenean.
- (iv) Kontseilariak batzordekide izateari uko egiten dionean.

Batzordeko idazkariak, Administrazio Kontseiluko kide ez den idazkaria edo idazkariordea izanez gero, kargua utziko du Administrazio Kontseiluko idazkari edo idazkariorde izaera galtzen duenean.

### **17. artikulua. Saiokak**

1. Batzordea batzartuko da urtean gutxienez bi (2) alditan eta gehienez lautan (4), bere eskumenari dagozkion gaien egoeraren ohiko berrikuspena eta ebaluazioa egiteko, bai eta Batzordeko lehendakariak deitzen duen aldiro ere, egokia baderitzo Batzordeare funtzioak ondo bete daitezten.
2. Edozein kasutan ere, lehendakariak Batzordea deituko du Administrazio Kontseiluak edo hartako lehendakariak txosten bat egitea edo proposamenak onartzea eskatzen duen guztietan, edo batzordekideen heren batek eskatzen duenean.

### **18. artikulua. Deialdia**

1. Batzordearen deialdia lehendakariak edo idazkariak egingo du lehendakariaren aginduz, gutun, fax edo posta elektronikoko bidez.
2. Deialdia gutxienez bost (5) egun balioduneko aurrerapenarekin egingo da, presazko saioak egin behar direnean izan ezik. Deialdiak saioaren gai-zerrenda jasoko du beti, eta behar bezala laburtutako eta prestatutako informazio garrantzitsuenarekin aurkeztuko da.
3. Ez da Batzorderako deirik egin beharrik izango batzordekide guztiek, bertan egonik, aho batez bilera egitea onartzen badute.
4. Ezhohiko saioetara deitzeko eta bozketak idatziz eta saiorik gabe egiteko aukeraren inguruan, Sozietateko Estatutueta eta Administrazio Kontseiluaren Araudian aurreikusten dena aplikatuko da Batzordearen bileretan.

## **19. artikulua. Eraketa**

1. Batzordea sozietatearen egoitzan edo deialdian adierazitako tokian batuko da.
2. Batzordea baliozko moduan eratuta egongo da kide-kopuruaren erdiak baino gehiago elkartzen direnean, bertaratuen eta ordezkatuaren artean. Batzordea eratu ondoren sortzen diren absentziek ez diote eragingo Batzordearen baliozkotasunari.
3. Batzordearen bilerak egin daitezke bideokonferentziaz edo telefono bidezko multikonferentziaz ere, eta Batzordearen saioa deialdian egoitza nagusi gisa agertzen den lekuan egin dela joko da.. Ez bada adierazi egoitza hori zein den, bilerako buru den kontseilaria dagoen lekua dela joko da.
4. Batzordeko edozein kidek eman diezaioke bere ordezkaritza, idatziz eta bilera bakoitzerako bakarrik, beste kide bati, eta lehendakariari edo Batzordeko idazkariari jakinarazi behar dio aurreko artikuluko lehenengo atalean deskribatutako edozein bidez.
5. Lehendakariak eztabaida zuzendu behar du, hitza eman behar du, eta parte-hartzeak itxi behar ditu iruditzen zaionean gai bat nahikoa eztabaidatu dela. Bozketak eskua jasota egingo dira.
6. Lehendakaria bertan ez bada, gaixo badago edo ezinezkoa bazaio saioa zuzentzea, antzinasun handieneko batzordekideak zuzenduko du saioa, eta, antzinasun berekorik izanez gero, haietatik zaharrenak. Idazkaria bertan ez bada, gaixo badago edo ezinezkoa bazaio idazkari-lanak egitea, antzinasun txikiena duenak jardungo du idazkari, eta, antzinasun berekorik izanez gero, haietatik gazteenak.

## **20. artikulua. Akordioak**

1. Bilerara joan diren kideen gehiengo osoz hartu behar dira erabakiak. Berdinketa izanez gero, lehendakariak kalitateko botoa izango du.
2. Batzordeko eztabaidak eta erabakiak akta batean jasoko dira, eta lehendakariak eta idazkariak edo haien ordezkariak sinatuko dute. Batzordeak onartu egingo ditu aktak bileraren bukaeran edo hurrengoaren hasieran.

## **21. artikulua. Interes-gatazka**

Batzordearen bileretan jorratu beharreko gaiek zuzenean eragiten badiete batzordekideren bati edo hari lotutako pertsoneri, eta, oro har, kide hori interes-gatazka batean suertatzen bada, kide horrek bileratik atera behar du erabakia hartu arte, eta, quoruma eta gehiengoak zenbatzean, kide hori kendu egin behar da Batzordeko kideen kopurutik, hizpide den gaiari dagokionez.

## **22. artikulua. Bertaratzea**

1. Lehendakariak edo batzordekideetako bik (2) eskatuta, Batzordearen bileretara joan daiteke Administrazio Kontseiluko edozein kide, Sozietateko edo taldeko edozein zuzendari edo langile eta partaidetzako sozietateetako administrazio-organoetako edozein kide, baldin eta haren izendapena Sozietateak proposatu badu, betiere legeak ez badu hori eragozten.

2. Batzordeak une oro eska dezake kanpoko ikuskari bat bileretara bertaratzea.

### **III. KAPITULUA. IZENDAPEN ETA ORDAINKETABATZORDEAREN HARREMANAK**

#### **23. artikulua. Harremanak Akziodunen Batzar Nagusiarekin**

1. Batzordeak obligazioa du Akziodunen Batzar Nagusiari emateko akziodunek, beren eskumenen gaien inguruan, Batzordean azaltzen dituzten gaien berri.
2. Aurreko paragrafoaren ondorioz, Batzordeak urteko txosten bat egingo du Batzordearen jardueren inguruan, akziodunen eskura jarriko dena Administrazio Kontseiluak txosten hori onartzen duenean, ohiko Akziodunen Batzar Nagusira deitu eta gero.

#### **24. artikulua. Harremanak Administrazio Kontseiluarekin**

1. Batzordeko lehendakariak bere jardueraren berri emango dio Administrazio Kontseiluari, Kontseiluak Batzordearen bilera bakoitzaren ondoren egiten duen lehen saioan.
2. Batzordeak Administrazio Kontseiluko lehendakariari eta Sozietatearen lehen exekutiboari egin beharko die kontsulta, bereziki kontseilari exekutiboen eta goi-zuzendarien inguruko gaiei dagokienez.
3. Edozein kontseilarik eska diezaioke Batzordeari kontuan izan ditzan kontseilari-postuak betetzeko hautagai izan daitezkeenak, Batzordeari egokiak direla iruditzen bazaio.

#### **25. artikulua. Harremanak Sozietatearen eta bere taldearen zuzendaritzarekin**

1. Batzordeak, bere lehendakariaren bidez, informazioa eskuratu eta Sozietatearen eta haren taldeko edozein zuzendariren edo langileren laguntza eska dezake. Hori dela eta, Sozietateko zuzendariak edo langileak Batzordeko saioetara joateko obligazioa izango dute, bai eta laguntzeko eta esku artean duten informazioa emateko ere, eskatzen badiete.
2. Edozein kasutan ere, Batzordeko lehendakariak jakinaraziko dio Administrazio Kontseiluko lehendakariari eta Sozietatearen lehen exekutiboari, halakorik izanez gero, Batzordeak zer eskakizun ezarri dituen Batzordera bertaratzeko.

### **IV. KAPITULUA. BATZORDEAREN AHALMENAK, AHOLKULARITZA ETA KIDEEN BETEBEHARRAK**

#### **26. artikulua. Ahalmenak**

Batzordeak, Administrazio Kontseiluko idazkariaren bitartez, Sozietateak Batzordearen eskumenekoak diren gaiei buruz duen eta bere zereginak betetzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio edo dokumentazio guztira jo dezake libreki.

## **27. artikulua. Aholkularitza**

1. Bere funtzioak gauzaten laguntzeko, Batzordeak eska dezake lege-aholkulariak, kontulariak, finantzariak edo beste aditu batzuk kontrata daitezela Sozietatearen kontura.
2. Kargua betetzean sortzen diren garrantzi eta konplexutasun handiko arazo jakinei buruzkoa izan behar du nahitaez enkarguak.
3. Laguntza-eskaera Sozietateko Administrazio Kontseiluko lehendakariari egin beharko zaio, zeinak ezezkoa eman dezakeen, iruditzen bazaio:
  - (i) ez dela beharrezkoa Batzordeari eskatutako funtzioak zentzuz betetzeko;
  - (ii) kostua ez dela zentzuzkoa, arazoaren garrantzia eta Sozietatearen aktiboak eta sarrerak ikusirik;
  - (iii) eskatutako laguntza teknikoak Sozietateko adituek eta teknikariek eman dezaketela egokiro; edo
  - (iv) arriskutsua izan daitekeela erabili beharreko informazioaren konfidentziasunerako.

## **28. artikulua. Batzordekideen betebeharrak**

1. Batzordekideak erakundeko gainerako kideen aldean independenteak izan beharko dira beren irizpideetan eta ekimenetan, eta prestasun eta gaitasun profesional osoz egin beharko dute beren lana.
2. Batzordekideek bete beharko dituzte Administrazio Kontseiluaren Araudian aurreikusitako kontseilarien betebeharrak guztiak, Batzordeak landutako funtzioei ezarri beharrekoak diren neurrian.

## **V. KAPITULUA. BETETZEA, ZABALTZEA ETA INTERPRETATZEA**

### **29. artikulua. Betetzea eta zabaltzea**

1. Batzordekideek, eta Administrazio Kontseiluko gainerako kideek ere bai, berei eragiten dien neurrian, Araudi hau ezagutzeko eta betetzeko obligazioa daukate.
2. Administrazio Kontseiluko idazkariak Araudi honen ale bat emango die kontseilari guztiei.
3. Horrez gain, Batzordeak zaindu beharko du Araudia betetzen dela eta dagozkion neurriak hartzen direla Araudia erakunde osoan behar den bezala zabaltzen dadin.

### **30. artikulua. Interpretazioa**

1. Araudia honako hauen arabera interpretatuko da: unean-unean indarrean dauden lege-arauak; Sozietatearen Estatutueta eta Administrazio Kontseiluaren Erregelamenduan jasotako eta ezarri beharreko xedapenak; eta erakunde arautzaileen eskaerei jarraikiz egindako gobernu onaren printzipioak eta gomendioak.
2. Araudi hau interpretatzerakoan sor daitezkeen zalantzak edo desadostasunak gehiengoaren bidez konponduko dira Batzordean bertan, eta halakorik izan ezean, bere lehendakariaren bidez, zeinak Administrazio Kontseiluak horretarako izendatutako pertsonen laguntza izango duen, hala dagokionean. Araudi hau interpretatzeari lotutako edozein zalantza edo desadostasun gehiengoak ebatzi behar du Batzordean, eta, halakorik ezean, Batzordeko lehendakariak, Administrazio Kontseiluak horretarako izendatu dituen pertsonak lagunduta, kasua bada.
3. Berariazko araurik izan ezean, Batzordeari honako hauek ezarriko zaizkio, bere izaerarekin bateraezinak ez badira behintzat: Administrazio Kontseiluaren Araudiak Batzordearen funtzionamenduaz emandako xedapenak, eta bereziki, bileren deialdien, ordezkaritza beste kontseilari bati eskuordetzearen, eraketaren, deitu gabeko saioen, erabakiak hartzearen eta erabakitzeke araubidearen, idatzizko eta saiorik gabeko bozketen eta bileretako akten onarpenen inguruko xedapenak.
4. Araudi honetan ezarritakoarekin kontraesanean egonez gero, Legea, Sozietatearen Estatutuak eta Administrazio Kontseiluaren Araudia gailenduko dira.

### **31. artikulua. Epeen zenbaketa**

Araubide honen ondorioetarako, egun baliodunak izango dira urte naturaleko egun guztiak, larunbatak, igandeak eta Bilboko hiriko beste edozein jaiegun izan ezik.